

Musika nazioartean sustatzeko bidaietarako laguntzen oinarriak

2017ko deialdia

Deialdi honen guztizko diru-kopurua 35.000 € da

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak **SGAEko autore eta argitaratzaile bazkideek** aurkeztutako laguntzen eskabideak aztertuko ditu, betiere euren jarduera nagusia musika garaikide eta sinfonikoa sortzeko edo letrak idazteko arloan eta honako arlo hauetan garatzen badute: popa, rocka, jazz, ikus-entzunezkoetarako musika, musika elektronikoa, flamenkoa, world musica, saiakuntzazkoa, hip hopa...

Autore edo argitaratzaile berak ezin izango du bidaietarako laguntza bat baino gehiago jaso urte berean.

Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdi honetan, eskatzaileek bidalitako proiektuek parte hartu ahal izango dute, betiere oinarri hauetako lehenengo klausula betetzen badute, autoreak bere lana nazioartean sustatzeko jaialdian, lehiaketan, azokan, merkatuan edo beste era bateko ekitaldian parte hartzen badu eta ekitaldi hori autorearen bizilekua ez den beste herrialde batean garatzen bada. Hau ez laguntzen musika emanaldiak gauzatzeko begiztatu.

Proiektuarekin batera, bere azalpena eta ekitaldiaren dataren zein lekuaren berri ematen duen kronograma aurkeztu beharko dira. Proiektuarekin batera, behar besteko agiriak aurkeztu beharko dira, autoreak edo argitaratzaileak ekitaldian parte hartzen duela egiaztatzeko. Proiektua 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra garatu ahal izango da.

Proiektu bera ezin izango da SGAE Fundazioko deialdi batean baino gehiagotan aurkeztu.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskabide bakoitzerako zenbatekoa ezin izango da 2.000 eurotik gorakoa izan (zergak barne). Ordainketa oinarri hauetako zortzigarren klausulan zehaztutakoaren arabera egin beharko da hitzarmenarekin lotutako ordainagiriaren bidez, eta PFEZko kasuan kasuko atxikipenak ezarriko dira.

Laugarrena: agiriak

Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:

1. Behar bezala betetako eskabide-orria.
2. NAN/AIZ/pasaportearen kopia.
3. Eskatzailearen CVA.
4. Laguntzaren helburu izango den sorkuntza-proiektuaren azalpena eta kronograma.
5. Kostuen aurrekontu xehea.
6. Gonbidapen-gutunak, partaidetzaren ziurtagiria...

7. Beste erakunde batzuen lankidetzaren ziurtagiria, hala badagokio.
8. Beste agiri gehigarri batzuk.

Bosgarrena: ebaluaziorako irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko orduan, SGAE Fundazioko Plan Zuzentzailean zehaztutako faktoreak hartuko dira kontuan, eta, euren artean, honako hauexek nabarmendu behar dira:

1. Autorearen eta gizarte osoaren arteko harremana sustatzea, autore-eskubidearen gaineko pedagogia soziala suspertzea eta kultura eskuratzeko aukera bultzatzea.
2. SGAE Fundazioak lantzen duen erreperitorio osoan, adierazpen artistiko berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea.
3. Beste instituzio eta erakunde batzuekin lan egitea.
4. Emakume autoreen partaidetza bultzatzea.

Horrez gain, aurkeztutako aurrekontuen arabera proiektuak daukan bideragarritasuna ere hartuko da kontuan, baita gizartean zein kulturaren izan dezakeen oihartzuna eta, hala badagokio, laguntza hauen bidez esleitutako baliabideen ezarpena ere.

Seigarrena: eskabideen aurkezpena eta epea

1. Eskabide-orria SGAE Fundazioaren web orrian egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Eskabide-orriaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskabide guztiak jaso izanaren egiaztagiria bidaliko du. Oinarri hauetan eskatutako agiriak aurkeztu ez dituzten eskabideek akatsak zuzentzeko hamabost eguneko gehienezko epea izango dute kasuan kasuko jakinarazpena jasotzen dutenetik.
2. Musika nazioartean sustatzeko bidaietarako laguntzen 2017ko deialdiko eskabideak aurkezteko epea otsailaren 9ean, osteguna, hasiko da, eta azaroaren 30a arte, osteguna, egongo da zabalik, gaueko 24:00ak arte. Ez da epe horretatik kanpo jasotako eskabiderik onartuko.
3. Jasotako eskabideak aldian-aldian ebaluatuko dira, eta bere garaian ebatzi eta argitaratu egingo dira SGAE Fundazioaren web orrian.

Zazpigarrena: eskabideen prozedura eta ebazpena

1. SGAE Fundazioko Patronatuak izendatutako Ebaluazio Batzordeak oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aztertu eta ebaluatu egingo ditu.
2. Batzordeak laguntzen esleipenari buruzko erabakia hartuko du, eta interesdun guztiei ebazpen horren berri emango zaie idatziz.
3. Batzordearen ebazpena ezeztatzeko izango da.
4. Batzordearen ebazpena aldekoa bada, aurkeztutako agiriak alderdien artean sinatuko den hitzarmeneko atal banaezina izango dira, eta ez dira hitzarmen horrek indarrean dirauen bitartean itzuliko.

Zortzigarrena: lankidetzaren gauzpena

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektua duen eskatzaileak lankidetzaz hitzarmen berezia sinatuko dute, eta, bertan, ezinbestean agertu beharko dira agiri honetan zehaztutako oinarriak eta ondoren aipatuko dugun informazioa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektua hasteko eta amaitzeko epea.
3. Esleitutako laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa daraman materiala eta azken memoria).

Hitzarmena laguntzaren eskatzailearekin gauzatuko da, eta oinarri hauetako lehenengo kalusulan adierazitakoa bete beharko du.

Bederatzigarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra

Proiektua kudeatzeko orduan alderdiek ematen duten informazio eta datu pertsonal guztiak isilpekoak izango dira.

Laguntza-eskaeraren bidez, irabazten duten parte-hartzaileek SGAE Fundazioa baimentzen dute laguntzen eskaeran emandako datu pertsonalak erabiltzeko eta hirugarrenei lagatzeko. Helburua da deialdi publiko mota hauetan behar diren kudeaketak eta izapideak egitea; adibidez:

- laguntzaren ebazpena Interneten argitaratzea
- jakinarazpenak eta mezuak bidaltzea mezularitzaren edo postaren bidez

Borondatez ematen dituzten datuak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategian gordeko dira, eta DBAeko Datuen Babeserako Erregistro Orokorriari eman beharko zaio horren berri. Norberaren Datuak Babesteko Oinarrizko Eskubidearen titularrak datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu. Datu horiek erabili nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko du idazkia: SGAE Fundazioa, zuzendari nagusiaren izenean, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. SGAE Fundazioak jakintzat emango du interesdunak emandako datuak egiazkoak direla eta gaur egungo egoeraren arabera direla. Interesdunak datu horien aldaketaren berri eman beharko du halakorik gertatzen denean.

Laguntzarako hautatutako eskatzailea pertsona juridikoa bada eta deialdi honetarako hirugarrenen datuak eman baditu, haien baimena eskatu beharko du, eta jakinarazi beharko die SGAE Fundazioak eta SGAEk haien datuak erabiliko dituztela lehen aipatutako kudeaketak eta izapideak egiteko.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak SGAE Fundazioaren logoa sartuko du proiektuaren sustapenean, hau da, publizitatean, karteletan, katalogoetan, liburuxketan eta antzeko beste batzuetan.
2. Eskaera egiteak esan nahi du eskatzaileak dokumentu honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak onartzen dituela eta baimena ematen dio SGAE Fundazioari, emandako laguntza Memoretan eta gainontzeko argitalpenetan zabaltzeko. Aipatutako arauetan adierazitako baldintzaren bat bete ezean, SGAE Fundazioak ez du esleitutako laguntza

ordainduko. Dagoeneko ordaindu badu, hautatutakoak zenbateko hori itzuli beharko du, SGAE Fundazioak baldintzaren bat bete ez duela jakinarazten dion mementotik aurrera.

3. Eskatzaileak ez dio SGAE Fundazioari inolako erantzukizunik egotziko, proiektua egiteko eta garatzeko orduan indarreko legeria edonola urratzen duenean.
4. Kontratu honen arabera, SGAE Fundazioak ez du esleitutako laguntza ez beste erantzukizun zuzenik eta subsidiariorik bere gain hartuko, proiektua egiteko eta garatzeko orduan.
5. Agiri honetan ezarri beharreko legeria Espainiakoa izango da, eta alderdiek berariaz men egingo diote Madrilgo hiriburuko auzitegietako jurisdikzioari. Beraz, dagokien foruari egingo diote uko.

Informazio gehiago: informacion@fundacionsgae.org